

## UNESCO

Deskribapena: Kike herriko kalean agertzen da eta planoak zabaltzerakoan “arriskuan” hitza seinalatzen du.

Kike: UNESCOk argi gorria piztu du eta, euskara arriskuan dauden hizkuntzen artean sailkatu du, datuak lortu diren munduko beste bi mila lauhun eta hirurogeita hamar hizkuntzekin batera.

Deskribapena: Interneteko imajinak ateratzen dira non munduko maparen gainean koloretako txintxetak ikusten diren.

Kike (ahotsa off): Hizkuntzak bost multzotan sailkatu ditu eta kolore bat eman dio egoera bakoitzari: zuriak egoera zaurgarria edo “bulnerablea” adierazten du, horiak arriskua, laranja arrisku nabarmena, gorriak arrisku larria eta, beltzak hizkuntza desagertu egin dela. Baina kontu hauek guztiak Itziar Idiazabalek argituko dizkigu.

Deskribapena: Kike kalean Itziar Idiazabalekin agertzen da.

Kike: “Sailkapen horietara iristeko, zein dira aintzat hartzen diren faktoreak edo aldagaiak?”

Itziar: “Batetik dago belaunaldien arteko transmisioa, hiztun kopurua, zein gauzatarako erabiltzen den hizkuntza hori, estatu edo erakunde ofizialek zein babes edo laguntza eskaintzen dieten, zein den hiztunen jarrera edo komunitate beraren jarrera bere hizkuntzarekiko.

Faktore horietan nabarmenki, bat da garrantzitsuena sailkapen hori egiteko eta da belaunaldien arteko transmisio horren egoera. Eta horren arabera, gure hizkuntzan ere oso ondo bereizten dira gauzak; hegoaldean, transmisioa bikote euskaldunetan oso ondo egiten da, ia ehuneko ehunetan transmititzen da; bikote mistoetan ere, alegia, bat euskalduna eta bestea erdalduna denean ia ehuneko laurogeia edo dela uste dut eta hemen hori, hegoaldean oso ongi mantentzen da edo bultzatzen da. Aldiz, iparraldean ez da horrela: bikoteak, biak, euskaldunak izanda ere leku askotan galdu egiten da, ez da hizkuntza hori transmititzen.”